

Euskera

AMADEU CASELLAS, EKAINAREN 23tik GOSE GREBAN DEN PRESO ANARKISTAREN ALDEKO BORROKA ASTEA

Amadeu Casellasek 60 egun baino gehiago daramatza gose greban. Inork ez du ezer egin egoera honi irtenbidea emateko, ez epaileak ez Zuzendaritza Nagusiak. Kalea mintzatzeko ordua iritsi da!

Sistema honen gatibu direnek egunero pairatzen duten torturaren aurka, sentitzen duten amorrua adierazteko deia luzatzen diegu pertsona solidario guztiei. Borroka berrindartzeko ahalegin bat egin behar dugu gure kidearen egoera egunetik egunera larriagoa baita.

Erantzuleak garbi daude: agintean diren alderdi politikoak, gizatasunik gabeko epaileak, bankuak –benetako lapurrak-, Estatu honek atzerrian dituen ordezkariak, isiltasunaren konplizeak...

Abuztuaren 25etik 31ra bitartean: Amadeu Casellasen Askapenaren Aldeko Ekintza Deszentralizatuen Astea. Boterearen aurka irudimena!

Abuztuak 25 astelehena, goizeko 11tan: Direcció General de Serveis Penitenciàris-en egoitzaren aurrean elkarreratzea (3.gradua ematearen erantzuleak).

Direcció General de Serveis Penitenciàris
Albert Batlle i Bastardas
C/ Aragón, 332. Barcelona.
Metro L4 Girona
Telf.- 93.214.01.15
Fax.- 93.214.01.56

Abuztuak 30 larunbata, arratsaldeko 17tan: Elkarreratzea Pça de la Universitat de Barcelonan. ;;Astindu ipurdia Amadeurengatik!!

Harresiak apurtu, idatziozu:
Amadeu Casellas Ramón
Hospital Penitenciario de Terrassa
Ctra. Torrebonica, s/n .
08227 de Terrassa

SUPRESIÓN. Barcelonako Espetxeen Aurkako Koordinaketa
(informazio gehiago www.lahaine.org webguneko atal berezian)